



[Sare Antifaxista](#) elkarteak Arrano Beltza Kultur Elkartean, "Bahía de Pasaia, emboscada criminal" izeneko hitzaldia antolatu du. Aipatutako ekitaldia maiatzaren 15ean, arratsaldeko 19:30etan burutzeko asmoa dute.

Hitzaldiaren bitartez 1984ko martxoaren 22an poliziak Pasaia badi burututako enboscada gogora ekarriko dute. Aipatutako ekintza polizialaren ondorioz komando antikapitalista autonomoetako kide ziren Pelu, Txapas, Kurro eta Pelitxo erahilak izan ziren. Ekitaldian auzi hau lehengo eskutik ezagutzen duen Santiago Gonzalez izango duzue entzungai. Gonzalez kasuan jardun zuen abokatua izanik, prozesuan zehar suertatutako gora beherak azaldu ahal izango dizkigu.

Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, hitzaldiaz gain erakusketa, bideoak, materialak eta argazkiak ikusgai izango dituzte jarduera honetara gerturatzen diren guztiak.

Laguntzailea: Arrano Beltza Kultur Elkarte, Herriko Taberna. Sta Teresa enparantza nº 5 (Metro Bagatza) Barakaldo * Ezkeraldea - Bizkaia